

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

SEGURTASUNA

1. Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak 2
2. 2022an Rotterdamgo (Herbehereak) Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak 4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 5ekoa, Jaurlearitzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2022ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen emakida arautzen eta iragartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

Programaren araua eta deialdia:

AGINDUA, 2022ko uztailaren 5ekoa, Jaurlearitzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2022ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen eta iragartzen duena.

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2022ko urriaren 18koa, Segurtasuneko sailburuordearena, irabazi-asmorik gabeko elkarteei joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematen dizkiena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Prebentzio-programak garatzeko laguntza ekonomikoak, joko patologikoan sor daitezkeen ohiturei edo jokabideei sustagarria kentzera bideratutakoak, arreta berezia jarriz kolektibo ahulenei, hala nola adingabeei edo adimen-gaitasunak mugatuta dituzten pertsoneri.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Aurrekontu-konpromisoa: 200.000 €/ Aurrekontu-gauzatzea: 102.605,00 €

8 eskaera aurkeztu dira; guztiak onartu dira. Horietako hiru ludopatiak eta bestelako adikzioak tratatzen eta prebenitzen dituzten erakundeei dagozkie; horietako bi gizarte-ekimeneko gizarte- eta hezkuntza-arloko elkarteei dagozkie, beste bi koka daitezke kolektibo zaurgarrien gizarteratze-arloan, eta beste bat informazio-teknologiak behar bezala erabiltzeko elkarte batena da. Helburu nagusia ludopatiaren tratamendua ez duten elkarteek ere mota guztietako adikzioen arloan lan egiten dute, gizarteratze-ekintza guztietan gai errepikakorrak baitira.

Horregatik, arauaren helburuetan sartzen dira gauzatutako proiektu guztiak, bakoitza bere lurralde- eta gizarte-eremuan: joko patologikoari buruzko informazioa eta prebentzioa ematea; joko problematiko,



gehiegizko edo patologikoaren arrisku-egoera baten adierazleen ezagutza sustatzea; mendekotasun-potentzian eragiten duten faktoreak; teknologia berrien arriskuak ezagutzea; eta joko patologikoaren aurkako borrokan esperientziak eta baliabideak zabaltzea.

Elkarte onuradunetako zazpi 2021ean ere aurkeztu ziren deialdira, eta aurreko urteetan hasitako proiektuei jarraipena eman diete.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emitza
Programa kopurua	6	8
Aurkeztutako eskariak	6	8
Onartutako eskariak	6	8
Berriz aurkeztutako programak/ jasangarritasuna	6	6
Programa berriak	1	2
Parte hartzaile kopurua	1200	6468
Talde zaurgarrietako parte hartzaile kopurua (adingabeak, gazteak, gaitasun urridun pertsonak...)	1000	3000*
Giza baliabideen kopurua (hezitzaileak, irakasleak... boluntarioak zenbatu gabe)	17	29*
Kolaborazioak beste erakunde batzuekin (administrazioak, ikastetxeak, gizarte erakundeak, enpresa pribatua...)	10	24**
Argitalpen kopurua (web/ aldizkariak/ gidak/ panfletoak...)	5	8***

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek beren proiektuen justifikazioetan emandako zenbakiak batuz ateratzen dira datuak. Hori dela eta, pertsona taldeen banakapena estimagarria da.

**Proiektuetan parte hartzen duten ordaindutako langileak kontuan hartu ditugu. Ez dira sartzen proiektuen laguntzaile edo hartzaile diren zentro edo erakundeetako langileak (ikastetxeak, gizarte-langileak, osasun-erloto profesionalak...).*

*** Kontuan hartuta erakunde guztiek ohiko tratua dutela beste erakunde batzuekin eta administrazioarekin, ez dira banakatu elkarte guztien kontaktu guztiak. Kopurua handiagoa da, elkarte batzuek harreman ona baitute udalekin eta osasun-zentroekin, ikastetxeekin eta izaera sozialeko beste erakunde batzuekin.*

**** Kontuan hartuta erakunde guztiek zerbait argitaratu dutela, argitalpenak ez dira zehatz-mehatz jasotzen.*



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2022an Rotterdamgo (Herbehereak) Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2022ko uztailaren 12koa, Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2022an Rotterdamgo (Herbehereak) Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

.- EHAA, 140. zk., 2022ko uztailaren 20koa. AGINDUA, 2022ko uztailaren 12koa, Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2022an Rotterdamgo (Herbehereak) Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak emateko deialdia egiten duena.

.- EHAA, 29. zk., 2023ko otsailaren 10ekoa. EBAZPENA, 2022ko abenduaren 29koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, 2022an Rotterdamgo (Herbehereak) Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolariei laguntzak emateko deialdiaren babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza Programaren helburuak:

- .- Ertzaintzaren irudi positiboa sustatzea, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, bai kanpoan.
- .- Kirol-lehiaketan berezko balioak sustatzea, kontuan hartuta horietako asko modu batera edo bestera daudela parte hartzen duten kideen jardura profesionalarekin, eta, aldi berean, beren garapen profesionalerako baldintza fisiko egokienak hobeto mantentzen laguntzen dutela.
- .- Ertzaintzako kideen kide izatearen sentimendua indartzea, eta beste kultura eta komunitate batzuekin adiskidetasun-harremanak eta esperientzia-trukeak ezartzea, eta, horrela, Ertzaintzaren irudi ona sustatu eta zabaltzea, bere zeregin profesionalaren alderdi guztietan.

Diru-laguntza Programaren deskribapena:

- .- 2022an Rotterdamgo polizien eta suhiltzaileen munduko jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako dirulaguntzak, 2022ko uztailaren 22an eta 31n.
- .- Pertsona bakoitzari gehienez ere parte hartzeagatik sortutako eta justifikatutako gastuaren % 60 emango zaio, eta eskaera bakoitzeko gehienez ere mila eta berrehun (1.200) euro emango dira, hau da, guztira hoge mila (20.000) euro.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Ertzaintzako agenteek aurkeztutako 10 eskaerei eman zitzaien diru-laguntza, 2 emakume eta 8 gizon, 487,54 euro eta 1.198,59 euro artean, hau da, guztira zortzi mila berrehun eta zortzi euro eta hamazazpi euro (7.623,83).

Ertzaintzaren ordezkariak 9 domina lortu zituen: 5 urrezkoak, 5 zilarrezkoak eta 3 brontzezkoak. Horrek esan nahi du kirol-mailari eutsi zaiola aurreko edizioekin alderatuta.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
-------------------	----------------------	----------------

Dirulaguntza Plan Estrategikoak ez du adierazlerik ezarri.